

PRENTSA-OHARRA

Joseba Sarrionandia, Oihane Amantegi Uriarte, Maddi Barber, Miren Amuriza, Lizar Begoña edo Itxaro Borda: euskarazko sorkuntzaren ahots protagonistak Azkuna Zentroko Gutun Zuria Bilbao Jaialdiaren programazioan



Aurten, Gutun Zuriak begirada baikorra eta munduari irekia proposatzen du, literaturaren, artearen eta pentsamenduaren bidez

- **Azkuna Zentroan otsailaren 25etik martxoaren 1era egingo den jaialdian, euskal testuinguruko hainbat egilek hartuko dute parte, hala nola Joseba Sarrionandiak, Maddi Barberrek, Miren Amurizak, Lizar Begoñak, Oihane Amantegi Uriartek eta Miren Billelabeitiak**
- **Guztira, literatura garaikidearen hogeitaz bat erreferente eta egungo narratibaren ahots berriak izango dira jaialdian, hala nola, Sabina Urraca, Rosario Villajos, Lola López Mondéjar edo Rodrigo Fresán**
- **Itxaro Borda idazle euskaldunak eta Leila Guerriero kazetari argentinarrek jasoko dituzte BBK Gutun Zuria Bilbao Sariak**

**GUTUN ZURIA BILBAO.
LETREN NAZIOARTE JAIALDIA**

Noiz: otsailak 25 - martxoa 1
Non: Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao

Informazio gehiago prentsa@azkunazentroa.eus postan
edo 648 773 373 telefonoan

Bilbo, 2025eko otsailaren 12a. Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok, Bilboko Udalaren Gizarte eta Kultura Garaikidearen Zentroak, **Gutun Zuria Bilbao**. Letren Nazioarteko Jaialdiaren 18. edizioaren programazioa osatu du. Aurten, begirada baikorra eta munduari irekia proposatzen du, literaturaren, artearen eta pentsamenduaren bidez, literatura garaikideko izen garrantzitsuek eta gaur egungo narratibako ahots berriek osatutako programa baten bidez.

Fikzioaren, poesiaren, saiakeraren edo nobelaren bidez hitzarekiko urteroko topagune gisa finkatua, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao otsailaren 25etik martxoaren 1era bitartean hitza, saiakera, edizioa, antropologia, soziologia, filosofia, kazetaritza, ikerketa, ikusizko arteak edo zuzeneko arteak lantzen dituzten egileen topagune bihurtuko da.

Gutun Zuria Jaialdi irekia izateagatik nabarmentzen da, izaera anitza eta zeharkakoa duelako, eta ez duelako ez hizkuntza-kuotarik, ez publiko-kuotarik, ez sormen-diziplinarik. Mugarik eta aukera mugarik gabeko lurralde gisa planteatzen da, hitza eta topaketa ardatz nagusi izanik, non euskal kulturak garrantzi nabarmena duen.

Gutun Zuria: euskal literaturarako gunea

Jaialdiak solasaldiari ekingo dio Euskal Herriko, Estatuko eta nazioarteko hogeit egilerekin baino gehiagorekin, eta horien ugaritasunak gaur egungo sorkuntzaren paisaia erakutsiko du.

Aurten, Euskal Herriko testuinguruko hainbat egilek hartuko dute parte jaialdian, **Joseba Sarrionandiak**, esaterako, **Oihane Amantegi Uriarterekin** hitz egingo duenak. Euskaraz tropikoetan izenburupean, euskaraz idaztea zer den esplikatu dute. Horretaz gain, literaturaren inguruko beren ikuspegia ezagutzeko aukera izango dugu, baita egun literaturak duen lekuaren inguruan hausnartzeko ere.

Euskarazko literaturaren berrikuntzan erreferente den **Itxaro Bordak**, **Aurélia Lassaque** okzitaniarazko idazlearekin batera, testuinguru globalean hizkuntza gutxituetan idazteak dakarren erronkari helduko diote. Ondo dakite zer den literaturaren periferietan aritzea, ez soilik hizkuntzagatik, baita literaturarekiko beren hurbilpenagatik ere. Bi idazleak ibilbideari buruz eta hizkuntza eta literatura hautuei buruz jakiteko egokiera ezin hobea.

Euskal idazleen arteko hirugarren solasaldia **Miren Amuriza** eta **Lizar Begoña** izango dira, euskal literatura berriaren bi adibide. Solasaldian hizkuntzaren erabilera bereziei, harreman afektiboen joskera berriei eta mundu prekarizatu baten hondakinei buruz hitz egingo dute.

Oraina eta etorkizuna bideratzeko literatura

Aurten, jaialdiak, edizio bakoitzean berriz idazten den gutun zuria, **aurre egin nahi dio gizartean sumatzen den goibelaldiari**, eta baikortasunera gerturatu nahi du, literatura, arte eta pentsamendu-arloko sorkuntzaren bidez.

Testuinguru honetan kokatzen dira Jaialdiaren programa osatzen duten elkarrizketak, topaketak eta jardunaldi profesionalak. Aurten, Jaialdiak **Leila Guerriero** aurkeztuko du, Latinoamerikako narrazio-kazetaritzaren firma handietako bat, **Rodrigo Fresán** kazetari eta idazle argentinarrarekin solasean.

Era berean, publikoak **Sabina Urraca**, *El cielo* (Alfaguara, 2024) lanaren egilea, eta **Rosario Villajos**, *La educación física* (Seix barral, 2023) 2023ko Biblioteca Breve Sariaren irabazlearen arteko topaketan parte hartzeko aukera izango du. Bi nobela hauek desiraz, gorputzez, animaltasunez eta indarkeriaz beterik daude. Bien arteko solasaldi honetan, idazketa-prozesua nola lantzen duten eta literaturarekin duten pultsua zer-nolakoa den azalduko dute.

Azpimarratzekoa da **Carmen Estrada** ikertzaile neurozientzialari eta filologoaren presentzia, **Miguel Brievak** (Malpaso, 2019) ilustratutako *La Odisea* lanaren itzulpenaren eta egokitzenaren egilea. Hitzaldi hau Homeroren obra klasiko honen inguruan abiatuko da.

Lurraldearen defentsak **M^a Ángeles Fernández** eta **Jairo Marcosen** lanak lotzen ditu, testu eta argazkien bidez istorioak kontatzen esperientzia luzea duten freelance kazetariak; eta **Maddi Barber** euskal zinemagilearekin hitz egingo dute hitzaldi batean, non, besteak beste, urtegi bat eraikitzeagatik etxeak utzi behar izan zituztenen *Memorias ahogadas* azaleratuko diren (Pepitas de Calabaza, 2024).

“Gizarteak begien aurrean du egiaren gainbehera, aukera utopikoak distopia bihurtzen dira, ondoeza handitu eta betikotu egiten da. Horren aurrean, jaialdi honek elkarrizketa hedatu eta konpartitu nahi du sortzaile garaikideekin, orainari eta etorkizunari beste modu batez begiratzeko”, ziurtatu dute jaialdiaren antolatzaileek.

Zentzu honetan, **Lola López Mondéjar** idazle eta psikoanalistak eta **Manuel Cruz** filosofoak kapitalismo digitalaren ondorioez hitz egingo dute, bere estimulu segida eta denbora esperimenteratzeko gaitasun galerarekin, guztia momentuan nahi izatearen antsietateak bultzatuta.

Eta gaur egungo narratibaren esparruan, **Andrea Fernández Plata**k, *Jarroa* lanaren egileak, eta **Stefanía Carok**, *Pómulo y lejanía* lanaren idazleak, egunerokotasunari zukua ateratzen diote, aparteko bihurtzeraino. Topaketan, bere eleberriez, bertan aurkitu dituzten istorioez eta bere literaturarekin batera agertzen diren hizkuntza sortzaileez, hala nola ilustrazioaz eta dantzaz, hitz egingo dute.

“Sorkuntzak berekin dakar berriarekiko konfiantza eta plazera, arakatu gabeko espazioen aurkikuntza, ziurtzat jotzen dena zalantzan jartzeko eta irtenbideak irudikatzeko gaitasuna”, gogoratzen dute. **“Ez dago ezer hoberik idazleen eta artisten hitzak eta irudiak baino, irudikatzeko grinaz blaitu eta beldurrik gabe aritzeko espazio zabal eta libreetan”**.

Gutun Zuria PRO

Eta, jakina, kultura- eta liburu-industriaren publikoarengan ere pentsatzen du, **Gutun Zuria PRO** programa zuzentzen baitzaio, liburuaren kateko hogeita hamar bat eragilek sektorearen erronkei aurreten helduko dieten jardunaldi profesionalak. Edizio honetan, topaketa profesionalak editatu eta argitaratu izango ditu ardatz, jarduera hori eta haren funtzionamendua biltzen dituzten bi aditz. Egiletzatik hasi eta literatura-ekoizpenaren sustapenera eta komunikaziora, ediziotik eta inprimaketatik igarota, jardunaldi hauetan parte hartuko duten hogeita hamar eragilek liburuaren egungo argazkia eskainiko dute eta aldi berearen, zentsuraren eta ingurumeneko larrialdiaren garai hauetara egokitzeko.

Pepitas de Calabaza, **Periférica** eta **Astiberri** bezalako argitaletxeetatik Katixa Agirre, Rosario Villajos eta Leila Guerriero idazleetaraino; ilustrazio munduko profesionalak, **Arrate Rodríguez**, **Sara Morante**, **Andrea Ganuza** eta **Onda Fosch** kasu; **Garcinuño**, **Agprograf** eta **Cosmos Gráfico** bezalako inprentak; **No soy sibilia**, **Código nuevo** eta **Libros del K.O** bezalako sare sozialetako eduki sortzaileak (edo bookstagrammers); jaialdi eta azoken antolatzaileak Juan Insua (Kosmopolis), Begoña Morán (BilbaoPoesía) edo Sheila Cremaschi (Hay Festival España) kasu; eta **Punzadas Sonoras** podcast-a, jardunaldietako baten sarrera eta ondorioak egingo dituen.

Gainera, **edizioak presentzia espezifiko du**, eta, beraz, programan Azkuna Zentroak ekoitzitako azken argitalpenen aurkezpena nabarmentzen da, erresidentzian dauden sortzaileen lan artistikoa jaso eta zabaltzen baitute.

Jaialdirako sarrerak otsailaren 3an, astelehena, jarriko dira salgai web orri honetan: gutunzuria.azkunazentroa.eus.

Gutun Zuriaren jarduerak

Gutun Zuria publiko gaztearentzako jaialdia ere bada, kulturaren ikaskuntza ez-formalak zabaltzeko kezka duena, sormen literarioaren prozesuak bertatik bertara ezagutuz, **Miren Billelabeitia** idazlearekin, besteak beste. Literatura Unibertsaleko eta Euskal Hizkuntza eta Literaturako irakasleak *Oroimen irakurria idatziz: aitita-amamen guda zibila* tailerra DBHko 3. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei zuzendutako tailerra emango du. Bertan, irakurketaren garrantzia eskoletako ikasleekin partekatuko du, iritzi aske eta autonomoak garatu eta jakintza kritikoaren ildoan jartzeko modu gisa.

Jaialdiak irauten duen egunetan, Azkuna Zentroa - Alhondiga Bilbaoko hainbat gune topagune bihurtuko dira jarduerak, eskola-tailer, esku-hartze artistiko eta ikastaroetarako, hala nola **Leila Guerrierok** emango duen tailerra bezala, otsailaren 27an, ostegunean, kazetariei edo kazetaritzan interesa duten pertsonen zuzenduta egoteaz gain, egokia da errealitatea kontatzeko moduan ikuspegi berri baten bila dabilen edonorentzat.

Begiratu eta kontatu: hurbilketa bat kazetaritza narratibora izenburupean, Leila Guerrierok bi orduko tailer hau emango du, informazioa emateko teknikak, elkarriketatuengana iristeko modua, elkarriketak prestatzea eta bideratzea, informazioa hautatzea, erabil daitezkeen baliabide teknikoak partekatuz.

Jarduera artistiko horietako bat **Juan Viedma eta Lucía Rabadán**, fui.volvi.no.ofendi.a.nadie. kolektiboa osatzen dutenak, emango dutena izango da. Jaialdian zehar, Viedmak eta Rabadanek Azkuna Zentroan egingo den egoitza batean parte hartuko dute, eta, amaieran, ikusleentzako irakurketa performatibo bat egingo dute, *La sirena sola* izena duena.

Hauen proposamenaren abiapuntua kointzidentzien zerrenda da, biek partekatzen duten ziurtasun batera hurbiltzeko aukera ematen diena, iturri plastiko eta literarioekin erkatuta. Ikuspegi honek lan partekatuaren garrantzia azpimarratzen du, non beste alderdia, beldurrez eta itxaropenez itxaroten eta ahalegintzen dena, lehen zatiko lanaren motorra baita.

BBK Gutun Zuria Bilbao Sariak

Literatur sorkuntzaren inguruko esparru honetan, BBK-k eta Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok 2022tik ematen dute ohorezko sari hau, euskal literaturaren eta nazioarteko literaturaren funtsezko eragileen sorkuntza-lana aintzatesteko, haien ibilbideagatik, lan jakin batengatik edo kultura-proiektu garrantzitsu bat egiteagatik.

Laugarren edizio honetan euskal makila tradizionala **Itxaro Borda** (Baiona, 1959) bere ibilbide oparoagatik eta euskal literaturari egindako ekarpenagatik; eta **Leila Guerrierok**, idazle argentinarrak, Latinoamerikako kazetaritza narratiboko firma handienetako bat, jasoko dute. Biek euskal makila tradizionala jasoko dute asteartean, otsailak 25, jaialdiaren inaugurazioan.

Gainera, arte eta literatur sorkuntzari buruzko topaketaren 18. edizioa ireki eta ixteko ardura dute. Leila Guerrierok Rodrigo Fresan idazle, itzultzaile eta kazetari argentinarrarekin hitz egingo du asteartean, otsailak 25. Bestalde, Itxaro Bordak itxiko du jaialdia martxoaren 1ean, larunbata.

Itxaro Bordak eta Leila Guerrierok bat egin dute saria jaso duten idazle ospetsuen zerrendarekin: Miren Agur Meabe eta Theodor Kallifatides (2022), Anjel Lertxundi eta Cristina Rivera Garza (2023) eta Mariasun Landa eta Juan Mayorga (2024).

Gutun Zuria Bilbaok BBKren babesa du, EITBren laguntza eta Renfe eta Cafés Baquéren babesa; eta Radio 3, El Correo, Cadena Ser eta Deia ditu media partner gisa.



Informazio gehiago, irudiak edo elkarrizketak

prentsa@azkunazentroa.eus

Tels. +34 648 773 373